

1.1.4. Ebazpenak

287/2007 EBAZPENA, urriaren 15ekoa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren Urteko Jarduketarako Plan Orokorra onesten duena, 2007-2008 ikasturterako.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza Ikuskatzaile-tzaren antolaketa eta funtzionamendua arautu eta Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko sistema ezartzen duen irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuko 9. artikulua arabera, zerbitzu horrek Jarduketarako Plan Orokorra prestatuko du, eta horretan zehaztuko da Ikuskatzailetzari esleitutako eginkizunen garrantzia. Ezartzen du, halaber, plan hori urte baterako edo urte batzuetarako izan daitekeela.

Hezkuntza kontseilariak apirilaren 26an emandako 83/2005 Foru Aginduaren bitartez irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretua garatu zen. Agindu horren 27. artikulua arabera, Hezkuntza Departamentuak Lau Urteko Jarduketarako Plan Orokor bat ezarri behar du Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzurako. Plan hori Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Ikuskatzailetzarentzat lau urterako finkatzen dituen helburuak lortzeko bitartekoa da.

Plan honek 2007-2008 ikasturterako helburu eta edukiak ezartzen ditu, bai eta ikasturte honetan egingen diren jarduketak garrantzitsuenak ere. Plan honen bidez modu koherentean antolatu eta sistematizatu nahi da Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren eguneroko lana, horrela zerbitzu horretako kideen lana erraztu, kontestu batean sartu eta koordinatzeko.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa arautzen duen abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1. artikuluko d) idatz-zatiak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenbizikoa.-Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren Urteko Jarduketarako Plan Orokorra onestea 2007-2008 ikasturterako. Hona hemen

ARAUAK

1. Urteko Plana.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren jarduerak urteroko plangintza eta berrikuspena eskatzen du, hezkuntza sistemaren errealitate konplexu eta aldakorren aurrean erantzun eraginkorra eman ahal izateko. Urteko Plan hau ikuskatze jarduerak 2007-2008 ikasturtean bideratuko duen lan esparrua da.

Indarra duen araudiak Ikuskatzailetzari esleitzen dizkion eginkizunen garapenean txertatzen dira Urteko Planean ageri diren zerbitzu edo jarduketak guztiak.

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxe, programa, zerbitzu eta jarduera guztiak sartzen dira Planaren aplikazio esparruan. Testuinguru horretan, planak lehentasuna ematen dio Ikuskatzailetzari ikastetxean agertzeari, ikastetxea oinarritzko hezkuntza erakundea baita eta hezkuntza prozesuaren garalekia.

Plana prestatzerakoan kontuan hartu dira Ikuskapen Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua berrikustearen ondoko emaitzak, 2006/2007ko Urteko Planaren ebaluazioa eta Hezkuntza Administrazioak 2007-2008 ikasturterako dituen eskaera berriak.

2. Urteko Planaren helburuak.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2007-2008 ikasturteko Urteko Planaren helburuak honako hauek dira:

a) Ikuskatzailetzak ikastetxeei, Hezkuntza Departamentuari eta hezkuntza komunitate osoari ematen dizkien zerbitzuen plangintza ziurtatzea.

b) Ikuskatzailetzaren jarduketak zehaztea kontrolaren eta gainbegiratzearen arloan.

c) Ikuskatzaileek ikastetxe, irakasle eta programak ebaluatzeko egin behar dituzten jarduketak ezartzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistema ebaluatzeko Ikuskatzailetzak egin beharreko jarduketak zehaztea eta Ebaluazio Institutuari laguntzea Nafarroako ikastetxeetan egiten diren nazioko edo nazioarteko ebaluazioak egiten.

e) Ikastetxeentzako aholkularitza jarduketak identifikatzea.

f) Hezkuntza Ikuskatzailetzaren eginkizunen esparruan, ikastetxeetan bizikidetzak hobetzeko jarduketak identifikatzea.

g) Hezkuntza administrazioari informazioa emateko eta Hezkuntza Departamentuko bestelako zerbitzuekin elkarlanean aritzeko jarduketak ezartzea.

h) Planaren definizioaren, ezarpenaren eta jarduketaren hobekuntzaren inguruko erantzukizunak ezartzea.

i) Planaren helburuak lortzeko bidea emanen duten kalitatearen kudeaketako sistemak finkatzea.

j) Zerbitzuko langileen ezagupenak berritu eta handitzeko jarduerak finkatzea, planean aurreikusitako zerbitzuak ematean kalitatea eta bikaintasuna lortzearen.

k) Ondorioak atera eta proposamenak egitea, egindako jarduketari buruzko txosten eta azterlanak eginez.

3. Urteko Planaren edukia.

2007-2008 ikasturteko Urteko Planean zenbait zerbitzu edo jarduera sartzen dira, hain zuzen ere Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak zerbitzu horien hartzaileen premiei eta espektatibei erantzuna emateko egin beharko dituenak. Zerbitzu horietako bakoitza prozesu elkartu baten bidez ematen da.

Ebazpen honen I. eranskinean 2007-2008 ikasturtean garatu nahi diren prozesuak agertzen dira, eta II. eranskinean, berriz, garrantzitsuenak diren eta Zerbitzuko kideen dedikazio handiagoa eskatzen duten zerbitzuak.

4. Erantzukizunak.

Ikuskatzailearen lanaren ardatza ikastetxea da. Horregatik, planean dauden azpiprosesuak aplikatuz, ikuskatzaileak ikastetxeei argibideak, aholkuak eta orientabideak emanen dizkie etengabe, bitarteko lana egiten du eta, hezkuntza komunitateak eskatuz gero, behar duten laguntza emanen die, deusetan galarazi gabe irakaslan, ikastetxeak eta, oro har, hezkuntza sistema etengabe hobetzera bideraturiko kontrol, gainbegiratze eta ebaluazio lanak.

Urteko plan hau zuzen gauzatzeko, Zerbitzuko zuzendariak erantzukizunak emanen dizkie koordinatzaileei eta ikuskatzaileei.

5. Kalitatea kudeatzeko sistema.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko hasitako prozesuarekin bat, 2007-2008 ikasturtean, finkatu diren azpiprosesuak ezartzen jarraituko du, baita prozesu berriak ezartzen ere, uste baita sistema horrek Zerbitzuaren funtzionamendua arindu eta koherenteagoa eta homogeneagoa egiten duela eta, aldi berean, ikuskatzaileen praktika hobetzen laguntzen duela.

6. Prestakuntza instituzionala.

Zerbitzua berritu eta hobetzeko ekimenen artean prestakuntza instituzionaleko plana gauzatea aurreikusi da, Planaren barnean beharrezkoa den arloetan ezagutza garatzeko baliabide egokia baita. Prestakuntzarako ekintza hauek aurreikusi dira:

a) Araudia aztertzea eta irizpideak homogeneizatzea, aplikaziorako.

b) Oinarritzko gaitasunak eta diagnostikoko ebaluazioak.

c) Alderdi juridiko eta administratiboetako prestakuntza, ikuskapen prozesuen inguruan.

d) Kanpoko ebaluazioaren emaitzak interpretatzea.

e) Hizkuntza komunitarioak.

f) Prestakuntza teknologia berrietan.

g) Biltzar eta jardunaldietan parte hartzea.

2007-2008ko Prestakuntza Instituzionalaren Planaren bidez zehaztuko da prestakuntza ekintza horien garapena.

Prestakuntza instituzionaleko jarduerak nahitaezkoak izanen dira eta lanorduetan eginen.

7. Jarraipena eta ebaluazioa.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa eremuko taldeen bilera arruntetan eta koordinatzaileek Zerbitzuko zuzendariarekin egin beharrekoetan gauzatu da. Egindako lanak ebaluatu eta Plan Orokorra aurrera eramateko behar diren neurri zuzentzaileak sartuko dira bilera horietan.

Kasu berezietan, Zerbitzuko zuzendariak, planaren aplikazio egokia, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, nahi adina dei egin ahalko du koordinatzaileekin edo ikuskatzaile guztiekin bilerak egiteko.

8. Aurreikusitako aldaketak.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren Urteko Plana, berez, eginkizunak ongi mugatuak dituen laneko baliabidea da.

Hala ere, planaren dinamikaren eta hezkuntza errealtatearen ondoriozko beharren arabera, beharrezkoa da aurrera eramaten den bitartean aldaketak egiteko modua izatea.

Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak edozein unetan egin ahalko ditu aldaketa horiek; Zerbitzuko zuzendariak ere egin ditzake, presako jarduketaren bat egin beharra dagoela uste duenean. Betiere, zuzendari nagusiari horren berri eman beharko dio.

Hezkuntza Departamentuko gainerako zerbitzuetako zuzendariak ikuskapenaren inguruan proposatzen dituzten jarduketetarako, oniritzia eman beharko du Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak, zeinek haien bideragarritasuna baloratu beharko baitu Urteko Planaren arabera.

9. Urteko Plana gauzatea.

Urteko Plan hau Ikuskatzailearen 2007-2008 ikasturterako Gida-liburuaren bidez gauzatu da.

Bigarrenen.-Ebazpen honen eta oinarrien aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Hezkuntza Departamentuko kontseilariari zuzendua, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Hirugarrenen.-Ebazpen hau eta oinarriak Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALERA igorriko dira, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean.-Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia, Francisco Javier Esparza Sánchez.

I. ERANSKINA

Prozesuen matrizea

FUNTSEZKO ERAGIKETA PROZESUAK	KODEA
PLANGINTZA ETA DISEINUA	
Zerbitzuen zerrenda onestea	PR0701
Zerbitzu berriak diseinatu eta garatzea	PR0702
Zerbitzuak emateko plangintza	PR0703
Txostenak egin eta ikus-onestea	PR0704
Ikastetxeekin harremanak izatea: bisita	PR0705
Lau Urteko Plana	PR0503
Urteko Plan Orokorra	PR0504
Prestakuntza instituzionala	PR0605

FUNTSEZKO ERAGIKETA PROZESUAK	KODEA
ZERBITZUA EMATEA	
Kontrola eta gainbegiratzea	PR0711
Ikasturte hasierako gainbegiratzea: matrikula, taldeak, ordutegia, taldeak eta irakasleak, titulazioak etab.	SB071101
Ikastetxeen urteko plangintza gainbegiratzea: Urteko Programazio Orokorra, Ikastetxea Antolatze Agiria, programazioak eta memoriak	SB071102
Hezkuntza Sistemaren antolamenduaren eta irakaskuntzen jarraipena	SB071103
Irakasleen hutsegite-parteari gainbegiratzea	SB071104
Irakasleen prestakuntzarako baimenak ematea	SB071105
Ikasleen diziplina espedienteetako erreklamazioei buruzko proposamena	SB071106
Ikastetxeetako zuzendarien izendapen bereziaren proposamena	SB071107
Ikastetxeetako egutegia eta ordutegia onestea	SB071108
UCA-DC-PIP-PIL eskabideak gainbegiratzea	SB071109
Ikasleen kalifikazioei buruzko erreklamazioak	SB071110
Agirien egiazkotasuna gainbegiratu eta ikus-onestea	SB071111
Ikastetxe pribatu itunduen eskola jarduerak eta zerbitzuak baimendu eta erregistratzea	SB071112
Ikasleak ebaluatze eta mailaz igotze irizpideak behar bezala aplikatzen diren begiratzea	SB071113
Ebaluazio agiriak behar bezala betetzen diren begiratzea	SB071114
Erreklamazio eta salaketei buruzko txostenak egitea	SB071115
Testu liburuen aldaketa baimentzeko txostena egitea	SB071116
Zerbitzu osagarriak gainbegiratzea: jantokia eta garraioa	SB071117
Eskolatze liburua eta kalifikazioak erregistratu eta banatzea	SB071118
Plangintza instituzionalerako tresnak gainbegiratzea	SB071119
IKASTETXE, IRAKASLE ETA PROGRAMEN EBALUAZIOA	PR0712
Ikastetxeen diagnostikorako kanpo ebaluazioa (antolamendua, funtzionamendua, emaitzak)	SB071201
Hobekuntza planen jarraipena	SB071203
Ikastetxeetako kalitatea kudeatzeko sistemen ebaluazioa	SB071204
Ikastetxeetako emaitza akademikoak aztertzea	SB071205
Zuzendaritza lanaren ebaluazioa eta agintaldia berritzea.	SB071206
Koordinazio lanaren ebaluazioa: departamentuko burutza eta zikloaren koordinazioa	SB071207
Irakaskuntza lanaren ebaluazioa: irakasleak, zerbitzu bereziak, praktiketan ari diren irakasleak, lizentziak eskuratu nahi dituztenak eta lanpostu trukeak	SB071208
Departamentuak onetsitako programa eta proiektuen ebaluazioa	SB071209
SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA ADIERAZLEAK	PR0713
Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren ebaluazio orokorra	SB071301
Ebaluazio proiektu nazionalen eta nazioartekoetan parte hartzea	SB071302
Nafarroako hezkuntzako adierazleen sistema	SB071303
Hezkuntzako berriztapen eta esperimentazio proiektuak ebaluatzea	SB071304
IKASTETXEEI AHOLKUAK EMATEA	PR0714
Ikastetxeei arauak buruzko aholkuak ematea	SB071401
Ikastetxeei antolamenduaren eta curriculumaren gaineko aholkuak ematea	SB071402
Ikastetxeetako gatazkei aurrea hartzeko lanean eta bitartekotzan parte hartzea	SB071403
Gurasoei eta ikasleei aholkuak ematea	SB071404
Hezkuntza administrazioak eskatzen dituen txosten eta azterlanak egitea	SB071501
Hezkuntza itunei buruzko txostena egitea	SB071502
Eskolatze aldia malgutzaren gaineko txostena egitea	SB071503
Lehen Hezkuntzan berandu sartzei buruzko txostena egitea	SB071504
Espazioen beharri buruzko txostena egitea	SB071505
Zerbitzu eginkizunei buruzko txostena egitea	SB071506
Ikasketak berriak baimentzei buruzko txostena egitea	SB071507
Ikastetxeak baimendu, ireki eta itxeko txostenak egitea	SB071508
Eskola espazioen desafektazioari buruzko txostena egitea	SB071509
Kontraesaneko espedienteak izapidatzea	SB071510
Funtzionarioen aurkako diziplina espedienteak izapidatzea	SB071511
Irakasleen alorreko batzorde eta epaimahaietan parte hartzea	SB071512
Ikasleak ebaluatze batzorde eta epaimahaietan parte hartzea	SB071513
Departamentuak sortutako batzorde eta lan taldeetan parte hartzea	SB071514
Departamentuaren arau proposamenak berrikustea	SB071515
Eskolako jazarpena gertatzen denean ikuskatzaileek esku hartzea	SB071516
Hezkuntza komunitatean larritasuna sortzen duten gertakari larrietan ikuskatzaileek esku hartzea	SB071517
Laneko jazarpena gertatzen denean ikuskatzaileek esku hartzea	SB071518
Ikastetxeetako zuzendariak hautatzea	SB071519
ESKOLATZEA	PR0716
Hezkuntza eskaintzari buruzko proposamena egin eta ikastetxeei jakinaraztea	SB071601
Ikastetxeetako ikasleen eta taldeen errolda eta eguneratzea	SB071602
Eskolatze prozesua koordinatzea eta ikasleak ikastetxeetan onartzeko prozesua gainbegiratzea	SB071603
Ikasleen eskolatzei buruzko azterlanak egitea	SB071604
Ikastetxez aldatzeko proposamena egitea, hutsegite oso larriak edo egoera bereziak izaten direnean	SB071605
PLANTILLAK ZEHATZTEA ETA BALIABIDEAK AURREIKUSTEA	PR0717
Ikastetxeen plantilla organikoari buruzko proposamena zehatzea	SB071701
Ikastetxeen funtzionamendurako plantillari buruzko proposamena zehatzea	SB071702
Irakasle ibiltarien ibilbideak antolatu eta gainbegiratzea	SB071703
Hezkuntzako giza baliabideen beharrei eta erabilerrari buruzko azterlanak	SB071704
Eskola antolamenduari buruzko azterlanak	SB071705

II. ERANSKINA - URTEKO PLANA

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua: jarduketa nagusiak. 2007-2008 ikasturtea

PROZESUAK	ZERBITZUA - JARDUERA		EMAITZA	APLIKAZIO EREMUA	ARDURADUNA (Jabea)	OHARRAK
	Kodea	Izena	Txostena / Bisita			
Kontrola eta gainbegiratzea PR0711	SB071101	Ikasturte hasierako gainbegiratzea: matrikula, taldeak, ordutegia, taldeak eta irakasleak, titulazioak etab.	Zuzendaritza taldeari bisita egitea. Esleitutako ikastetxe publikoen txostena. EDUCA txost. Titulazioei buruzko noizean behingo txostena	Ikastetxe guztiak	1. eremuko koord.	Ikastetxe publikoetako irakasleen ordutegiak onestea EDUCA bidez. Ikasle taldeen ordutegiak zuzentzeko eskaera, hala behar denean.
	SB071102	Ikastetxeen urteko plangintza gainbegiratzea.	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeari bisita egitea	Ikastetxe guztiak	Ebaluazioko koordinatzailea	HLHko ikastetxeak (Memoria eta UPO): hobetzeko bideak. BHko ikastetxeak (programazio didaktikoak): adostasuneko dokumentua.
	SB071107	Ikastetxeetako zuzendarien izendapen bereziaren proposamena	Banakako txost.	Zuzendaritza taldea berritu behar duten eta hautagaririk ez duten ikastetxeak	Ikastetxeetako zuzendarien arloko koord.	
	SB071108	Ikastetxeetako egutegia eta ordutegia onestea	Ikastetxearen txost.	Ikastetxe guztiak	1. eremuko koord.	
	SB071110	Ikasleen kalifikazioei buruzko erreklamazioak	Txostena	Ikastetxeko zuzendariaren eskaerari buruz	Bizikidetzako koordinatzailea	
	SB071112	Ikastetxe pribatu itunduen eskola jarduerak eta zerbitzuak baimendu eta erregistratzea	Ikastetxearen txost.	Ikastetxe pribatu itunduak	Jarduera eta zerbitzu osagarrien arloko koord.	
	SB071115	Erreklamazio eta salaketei buruzko txostenak egitea	Eskaeraren arabera	Ikastetxe publikoak eta itunduak	Bizikidetzako koordinatzailea	
	SB071103	Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak gainbegiratzea	Bisita Txostena	0-3ko ikastetxe publikoak	Haur Hezkuntzako arloaren koordinatzailea	Zehazteke
Ikastetxeen, irakasleen eta programen ebaluazioa PR0712	SB071203	Lehen Hezkuntzako 2007ko ebaluazioaren emaitzak aztertzea eta hobekuntza bideen jarraipena egin eta gainbegiratzea	Ikastetxea bisitatzea	HLHko ikastetxeak	Ebaluazioko koordinatzailea	Ikastetxeen urteko plangintza gainbegiratzearekin batera egin beharreko jarduketa
	SB071203	Ikastetxeek zehazten dituzten hobekuntza bideen jarraipena egin eta gainbegiratzea, eta PISA ebaluazioko emaitzak laginean parte hartu duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxei itzultzea.	Ikastetxea bisitatzea	BHko ikastetxeak	Ebaluazioko koordinatzailea	Emaitza akademikoak itzultzearekin batera
	SB071204	Kalitatea kudeatzeko sistemen ebaluazioa	Ikastetxea bisitatzea Ikastetxearen txostena	Hautatutako ikastetxeak	Kalitateko koordinatzailea	2006-07 ikasturtean zehaztutako azpiprozesuaren arabera
	SB071205	Ikastetxeetako emaitza akademikoak itzultzea	Ikastetxea bisitatzea	BHko ikastetxe guztiak	Ebaluazioko koordinatzailea	PISA 2006ko emaitzak itzultzearekin eta hobekuntza bideen jarraipenarekin batera
	SB071206	LOCEko zuzendaritza eginkizuna ebaluatzea	Banakako txost.	LOCEko prozeduraren arabera izendatutako zuzendariak	2. eremuko koord.	
	SB071208	Irakaskuntza lanaren ebaluazioa: praktiketan ari diren irakasleak	Banakako txost.	2007ko hautapen prozesuetan parte hartu duten Maisu-maistren Kidegoko irakasleak	Irakasleen arloko koord.	
	SB071209	Lanaldi malgua Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxe publikotan modu esperimentalean ezarri ondoko jarraipena.	Ikastetxe bakoitzaren txostena	Lau ikastetxe esperimental	3. eremuko koordinatzailea	
Sistemaren ebaluazioa eta adierazleak PR0713	SB071301	Lehen Hezkuntzaren 2007ko ebaluazioaren txostena egitea	Nafarroako txostena	Nafarroako Foru Komunitateko lagineko ikastetxeak	Ebaluazioko koordinatzailea	
	SB071301	Diagnostikoko ebaluazioen esparrua prestatzea	Ebaluazio esparruaren argitalpena	Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoak eta pribatuak	Ebaluazioko koordinatzailea	
	SB071302	Haur Hezkuntzako ebaluazioan parte hartzea		Haur Hezkuntza ematen duten ikastetxeak, laginean hautatuak	Ebaluazioko koordinatzailea	
	SB071302	PISA 2006 ebaluazioko txostenak egitea	Nafarroako txostenaren argitalpena Ikastetxe bakoitzaren txostena	Nafarroan DBH ematen duten ikastetxeak		Nafarroako Foru Komunitateko emaitzei buruzko txostena Laginean parte hartu duten ikastetxeen txostenak
	SB071303	Nafarroako hezkuntza adierazleak prestatzea	Adierazleen txostena			
Ikastetxeak aholkatzea PR0714	SB071401 SB071402	Ikastetxei arauen, antolamenduaren eta curriculumen gaineko aholkuak ematea	Noizean behingo txostena	Zuzendaritza taldearen eskaerari buruz	4. eremuko koord.	Ikasturtea abian jartzekoan izaten diren aholkularitza jarduerak dedikazio handiagoa eskatzen dute
	SB071403	Ikastetxeetako gatazkei aurrea hartzeko lanean eta bitartekotzan parte hartzea	Bisita Noizean behingo txostena	Eskaera egiten duten ikastetxe publikoak eta itunduak	Bizikidetzarako koordinatzailea	

PROZESUA	ZERBITZUA - JARDUERA		EMAITZA	APLIKAZIO EREMUA	ARDURADUNA (Jabea)	OHARRAK
	Kodea	Izena	Txostena / Bisita			
Hezkuntza administrazioari informazioa eta laguntza ematea PR0715	PR0715	Informazioa eta laguntza ematea, Zerbitzuko Zuzendariak proposatzen duenean.	Eskaeraren araberak	Ikastetxe publikoak eta itunduak	Zerbitzuko zuzendaria	Azterlanak, txostenak, batzordeetan (lekualdatze lehiaketak, oposizioak,...) eta epaimahaietan (oposizioak,...) parte hartzea edo espedienteak tramitatzea izaten ahal da.
	SB071506	Zerbitzu eginkizunei buruzko txostena egitea antolaketa arrazoiengatik	Noizean behingo txost.	Ikastetxe publikoak	Zerbitzuko zuzendaria	
	SB071514	LOEren araberrako zuzendariak hautatzeko batzordeetan parte hartzea		Ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzea	Ikastetxeetako zuzendarien arloko koord.	Ikasketak Antolatzeko Atalak antolatutako jarduerak
	SB071516 SB071517 SB071518	Ikuskatzaileek esku hartzea eskolako bizikidetzan arazo larriak daudenean	Bisita Noizean behingo txostena	Ikastetxe publikoak eta pribatuak	Bizikidetzako koordinatzailea	Bizikidetzako Aholkularitzarekin koordinaturik
Eskolatzea PR0716	SB071601	Hezkuntza eskaintzari buruzko proposamena egin eta ikastetxei jakinaraztea	Ikastetxeendako txostena	Ikastetxe publikoak eta itunduak	Eskolatze Batzordeko burua	
	SB071603	Eskolatze prozesua koordinatzea eta ikasleak ikastetxeetan onartzeko prozesua gainbegiratztea	Noizean behingo txostena	Ikastetxe publikoak eta itunduak	Eskolatze Batzordeko burua	
Plantillak zehaztea eta baliabideen aurreikuspena egitea PR0717	SB071701	Ikastetxeen plantilla organikoari buruzko proposamena zehaztea	Ikastetxearen txost.	Ikastetxe publikoak	Baliabideak planifikatzearen arloko koord.	
	SB071702	Ikastetxeen funtzionamendurako plantillari buruzko proposamena zehaztea	Ikastetxearen txost.	Ikastetxe publikoak	Baliabideak planifikatzearen arloko koord.	